# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Foru Aginduak*

### TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1664**

**Martxoaren 9ko 122/2011 FORU AGINDUA. Horren bidez, Etxabarri Ibiñako (Zigoitia) SAUI-3 sektorearen plan partzialaren espedientea behin betiko onartzen duen toki administrazioaren eta lurralde orekaren diputatuaren martxoaren 15eko 141/2010 Foru Aginduan ezarritako baldintzak beteko direla onartzen da.**

AURREKARIAK

Toki administrazioaren eta lurralde orekaren diputatuaren martxoaren 15eko 141/2010 Foru Agindu bidez Etxabarri Ibiñako (Zigoitia) SAUI-3 sektorearen plan partzialaren espedientea behin betiko onartu zen.

Foru agindu hori betetzeko, ezinbestekoa zen bertan adierazten ziren aldaketak espedientean jasotzea.

2011ko urtarrilaren 21ean Zigoitiko Udalak espedientearen testu bategina igorri zuen foru aldundira, betearaztekoa zela aitor dezan.

OINARRIAK

Espedientea osatzen duten agiriak aztertuta, egiaztatu da aipatutako foru aginduak ezarritako baldintzak bete direla.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Etxabarri Ibiñako (Zigoitia) SAUI-3 sektorearen plan partzialaren espedientea behin betiko onartzen duen toki administrazioaren eta lurralde orekaren diputatuaren martxoaren 15eko 141/2010 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzat jotzea.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, beren interesen alde abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke (administrazioen kasuan, errekerimendua), ebazpena eman duen organoari. Horretarako, berriz, hilabete izango da, honako hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko Martxoaren 9a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Diputatua, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

**“ETXABARRI IBIÑAKO” SAUI 3 SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA ERAIKUNTZA ETA ERABILERA ORDENANTZAK**

Zona bakoitzerako ordenantza bereziei buruzko hurrengo artikuluetan arautu ez diren gauza guztietan, udal arau subsidiarioetan arautu dena aplikatuko da.

ZONA BAKOITZERAKO ORDENANTZA BEREZIAK.

**Industria erabilerarako zona.**

Lurzati garbiaren eraikigarritasuna oroitidazkiaren 8.2. puntuan adierazitakoa da (8.2.- Antolamenduaren deskribapena eta oinarrizko irizpideak), ondoren azaltzen duguna:

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1664**

**ORDEN FORAL 122/2011, de 9 de marzo, de aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral nº 141/2010, de 15 de marzo, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial por la que se aprobó definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUI-3 de Etxabarri-Ibiña, en el municipio de Zigoitia.**

ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral nº 141/2010, de 15 de marzo, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial se aprobó definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUI-3 de Etxabarri-Ibiña, en el municipio de Zigoitia.

La ejecutoriedad de la citada Orden Foral quedó condicionada a la introducción en el expediente de las modificaciones que se señalaban en la misma.

Con fecha 21 de enero de 2011, el Ayuntamiento de Zigoitia ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente a fin de que sea declarada la ejecutoriedad del mismo.

FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral nº 141/2010, de 15 de marzo, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, por la que se aprobó definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUI-3 de Etxabarri-Ibiña en el municipio de Zigoitia.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 9 de marzo de 2011.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

**PLAN PARCIAL DEL SECTOR SAUI 3 “ETXABARRI IBIÑA ”ORDENANZAS DE EDIFICACIÓN Y USOS**

En todo lo no regulado en los siguientes artículos de ordenanzas particulares para cada zona se estará a lo regulado en las Normas Subsidiarias Municipales.

ORDENANZAS PARTICULARES PARA CADA ZONA.

**Zona Uso Industrial.**

La edificabilidad sobre parcela neta es la señalada en el punto 8.2 de la Memoria (8.2.-Criterios básicos y descripción de la ordenación), que se expone a continuación:

| LURZATIA | LURZATIAREN AZALERA GARBIA PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA | ERAIKIGARRITASUNA |
|---|---|---|
| ERABILERA | | |
| | | Eraikin atxikia. |
| -Biltegia | 57.419,06 $m^2s$ | Proiektatutako okupazioa: 44.207,44$m^2s$ |
| -Industriala (3000 $m^2c$-ra arte) | | Gehieneko eraikigarritasuna: 59.498,85 |
| | | Beraz, lurzati garbiaren eraikigarritasuna |
| | | 1,0362 $m^2c/m^2s$-koa da. |
| | | Beraz, lurzatiaren eraikigarritasuna |
| | | (59.498,85$m^2c$/57.419,06$m^2s$) |
| **GUZTIRA** | | **59.498,85 $m^2$.** |

a) Eraikuntza mota: Eraikin isolatuak eta atxikiak onartuko dira, betiere, lurzati eta mugekiko distantziak errespetatzen badituzte.

Eraikin bat industrialtzat joko da bertan plangintza arau subsidiarioetan industrial gisa definitutako erabileren barneko jardueraren bat burutzen bada.

Iturrizabaleta errekaren ibilgutik 100 metroko zerrendaren barnean -“Poliziaren zona” izenarekin ezaguna- garatu beharreko jarduerak eta eraikinak konfederazio hidrografikoak xedatutakoaren mende egongo dira.

b) Baimendutako erabilerak: Biltegi erabilera (tamaina mugarik gabe) eta 3.000 $m^2$-ko gehienezko azalera eraikira mugatutako industria erabilera baimenduko dira.

3.000 $m^2c$ baino gehiagoko azalera duten industriak Zigoitiko Udalaren berariazko baimenarekin bakarrik onartuko dira. Horiek jardueraren proposamena edo aurreproiektua udalean aurkeztu beharko dute, eta aztertu ondoren erabilera baimenduko du edo ez. Erabilera guztiek indarrean dagoen jarduera desatsegin, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen araudia bete beharko dute.

c) Gutxieneko lurzatiaren baldintzak: Honako parametro hauek bete beharko ditu

-Lurzatiaren gutxieneko azalera: 500 $m^2$.

-Bide-sistemarekiko gutxienekoa: 12 m.

d) Gutxieneko derrigorrezko atzeraemanguneak:

-Bide-sistemaren aurrealdea: 5m.

-Hondoan: 5 m.

-Alboko aldeak, halakorik balego: 5 m.

e) Itxiturak: Perimetroko itxiturak derrigorrezkoak izango dira.

Lurzati guztiek bide sistemarekiko duten itxiturak diseinu unitarioa izango du. 80 cm-ko altuerako ormigoi murru batekin eraikiko dira eta 2,00 m-ko altuera lortu arte egitura zeharrargiarekin osatuko da.

Errepideen zortasun zerrendan dauden lurzatien itxiturak erraz desmuntatuko dira, eta edozein fabrika ixtea debekatuta egongo da. (Zona honetan 4. etxadiko “erabilera industrialerako lurzatiaren” eta “interes publiko eta sozialerako zerbitzuen lurzatiaren” atzeko itxiturak eta mehelinak barne hartzen dira)

f) Eraikinen baldintzak.

e.1.) Gehieneko altuera.

Gailurreraino egon daitekeen gehieneko altuera eraikigarria 11 metrokoa izango da bulegoetan eta 15 metrokoa pabilioietan, garatu beharreko jarduerak beste neurri bat eskatzen duenetan izan ezik. Lurzatiak maila ezberdineko bi kaletara ematen badu, altuera espaloitik neurtuko da.

e.2.) Gehieneko solairu kopurua.

Gehieneko altuera aplikatzetik lortutakoak.

e.3.) Solairuen altuera askea.

Gutxieneko altuera 2,50 metrokoa izango da bulegoetan edo ekoizten ez den geletan.

Ekoizpenean erabiltzen diren nabe eta tailerretan eraikinaren gutxieneko altuera askea 4 metrokoa izango da.

e.4.) Hegalkin itxiak. Debekatuta daude.

e.5.) Estalkiak.

Malda ehuneko 0 eta 40 bitartekoa izango dute, eta estaltzeko materiala edozein izan daiteke, baldin eta kokalekuko ingurunea errespetatzen badu.

g) Aparkalekuetarako gutxieneko erreserba.

| PARCELA | SUPERFICIE PARCELA NETA SEGÚN ORDENACIÓN PROPUESTA | EDIFICABILIDAD |
|---|---|---|
| USO | | |
| | | Edificación adosada. |
| -Almacén | 57.419,06 $m^2s$ | Ocupación Proyectada:44.207,44$m^2s$ |
| -Industrial (Hasta 3000 $m^2c$) | | Edificabilidad Máx: 59.498,85. |
| | | Por lo tanto la edificabilidad sobre |
| | | parcela neta es de 1,0362 $m^2c/m^2s$. |
| | | Por lo tanto la edificabilidad sobre parcela |
| | | (59.498,85$m^2c$/57.419,06$m^2s$) |
| **TOTAL** | | **59.498,85 $m^2$.** |

a) Tipología edificatoria: La tipología edificatoria permitida será la edificación aislada y adosada, siempre respetando unas distancias a frente de parcela y linderos.

Por edificación industrial se entiende toda aquella donde se lleva a cabo alguna actividad comprendida dentro de los usos definidos como industriales en la Normas Subsidiarias de Planeamiento.

Las actividades y edificaciones a desarrollar dentro de la franja de 100 m desde el cauce del Arroyo Iturrizabaleta denominada “Zona de policía” estará sujeta a lo que determine la confederación hidrográfica.

b) Usos Autorizados: Los usos permitidos serán el de almacén (sin restricción de tamaño) y el de industria limitada a una superficie construida máxima de 3.000 $m^2$.

Las industrias de superficie superior a 3.000 $m^2c$ solo se permitirán con autorización expresa del Ayuntamiento de Zigoitia. Éstas deberán presentar la propuesta o anteproyecto de la actividad para que el Ayuntamiento, una vez analizado autorice o no el uso. Todos los usos deberán cumplir con el Reglamento de actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas vigente.

c) Condiciones parcela mínima: Deberá cumplir los siguientes parámetros

-Superficie mínima de parcela: 500 $m^2$.

-Frente mínimo a sistema viario: 12 m.

d) Retranqueos mínimos obligatorios:

-De fachada a sistema viario: 5m.

-De fondo: 5 m.

-Laterales en su caso: 5 m.

e) Cerramientos: Los cerramientos perimetrales serán obligatorios.

El cerramiento de todas las parcelas al sistema viario tendrá un diseño unitario. Se construirán con un murete de hormigón de 80 cm de altura y se completará hasta alcanzar una altura de 2,00 m. con estructura traslúcida.

El cerramiento de parcela que se sitúe en la franja de servidumbre de carreteras serán fácilmente desmontables, quedando prohibido cualquier cierre de fábrica. (Están incluidos en esta zona los cierras traseros y medianeros de la “parcela uso industrial “y “parcela servicios de interés público y social” de la Manzana 4)

f) Condiciones de la edificación.

e.1.) Altura máxima.

La altura máxima edificable hasta la cumbrera será de 11 m. para oficinas y 15 m. para pabellones, salvo que la actividad a desarrollar justifique una dimensión diferente. Se medirá desde la acera en las parcelas en que sus extremos den a calles de diferente nivel.

e.2.)Número máximo de plantas.

Las resultantes de aplicar la altura máxima.

e.3.) Altura libre de pisos.

Altura mínima será 2,50 m. en oficinas o estancias de carácter no productivo.

En naves y talleres de producción la altura libre mínima será de 4 m.

e.4.) Cuerpos volados cerrados. No se permiten.

e.5.) Cubiertas.

Tendrán una pendiente entre el 0 y 40 por ciento y para su cobertura se admite el empleo de cualquier material, siempre y cuando respete el entorno donde se ubica.

g) Reserva mínima de aparcamientos.

Eraikitako 100 $m^2$-ko plaza 1 indizea eta bide sisteman proiektatutako kopurua gogoan izanik, eraikinetarako sarbidea aintzat hartu ondoren, derrigorrezkotzat jotzen da plaza bat erreserbatzea gutxi gorabehera 222 $m^2$c-ro, lurzati bakoitzaren barnean egon beharko dena (erabilera industriala/biltegia).

Hornidura hori eraikitze proiektuan justifikatu beharko da.

h) Baldintza estetikoak eta osaerakoak.

Bide sistema publikoaren aurrean dauden eraikinen fatxada bereziki zaintzea gomendatzen da.

Erabilera industrialerako lurzatien pabilioiek, obra proiektu batean baino gehiagotan aztertzen badira, diseinu unitarioa izango dute, ikuspuntu formaletik, bolumetrikotik eta materialei dagokienez. Horretarako, sektorearen irizpide formalak zehaztuko dituen hirigintza agiria izapidetuko da.

i) Beste erabilera bateragarri batzuk

-Bulegoak: Erabilera hori solairu guztietan onartzen da

-Hirugarren sektorea: Erabilera hori debekatzen da, erabilera industrial nagusiaren zerbitzari denean izan ezik.

j) Industriako hondakinak saneamendu sare orokorrera isurtzeko baldintzak.

Poligonoko industria bakoitzak isurien aitorpena egin beharko du, eta horren arabera, bere jarduerak sortzen dituen hondakin urak poligonoko ur beltzen saneamendu sarean isurtzeko baimena emango zaio.

Jarduera bakoitzak lotura bakarra izan beharko du poligonoko saneamendu sarearekin. Lotura horretan "Kontrolerako kutxatila" egongo da. Kutxatila horretara heltzea erraz izango da eta bere egiturak bertatik laginak hartzeko aukera eskainiko du.

Poligonoko sarera isuritako hondakinek honako Isurien Ordenantzan xedatutako baldintzak eta gehieneko kopuruak bete beharko dituzte. Ordenantza horrek Etxebarri Ibiñako (Zigoitia) SAUI-3 industrialdearen estolda sare orokorrera bidalitako isuri industrialak arautzen ditu:

**Etxabarri Ibiñako SAUI-3rako ISURIEN ORDENANTZA**

1.- APLIKAZIO EREMUA

Ordenantza honek Etxebarri Ibiñako (Zigoitia) SAUI-3 industrialdearen estolda sare orokorrera bidalitako isuri industrialak arautzea du helburu, kolektore sareak eta araztegiak sortutako sistemak etekin ezin hobea izan dezan eta hondakinak Iturrizabaleta errekara arauzko baldintzatan isuri ahal ditzaten.

2.- XEDAPEN OROKORRAK

Araudi honek aurreko artikuluan adierazitako isurien baldintzak eta mugak xedatzen ditu, kolektore sarean eta araztegian, amaierako ibilgu hartzailean eta instalazioak mantentzen eta zaintzen dituzten langileen arriskuetan dituen eraginak kontuan hartuta.

Aurretik esandakoa kontuan hartuta, ordenantza honek Etxebarri Ibiñako SAUI-3 industrialdearen, herriaren eta ingurune guztiaren ingurumena defendatzea, babestea eta hobetzea du helburu.

Ordenantza honetan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, isuriak husteko gailuak, estolderia sarearekiko konexioak eta, orokorrean, helburu hori duten instalazioak, Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren arauen edo hori garatzen duten ordenantzen araberakoak izango dira, bai eta horien baldintza sanitarioak arautzen dituzten berariazko ordenantzen araberakoak ere.

3.- SANEAMENDUKO BARNEKO INSTALAZIOAK

Industriaren berezko instalaziotzat jotzen da horren saneamenduaren barneko sare guztia, koipeak banatzeko kutxatilak barne, baita ordenantza hau betetzeko beharrezkoa den isurien tratamendurako edozein elementu ere, espaloian, lurzatiaren oinetan dagoen kutxatila eta guzti, aldi berean isurien kontrolerako erregistroko kutxatila gisa balio izango duena.

Aurreko instalazio guztiak mantentzea, egokitzea eta konpontzea industria edo dendaren jabeari/ei dagokio/e.

Considerando el índice de 1 plaza/100 $m^2$ construidos y la cantidad proyectada en el sistema viario, una vez tenido en cuenta el acceso a la edificación, se establece como obligatoria la reserva de una plaza por cada 222 $m^2$c. aprox, que deberá estar dentro de cada parcela (Uso industrial/Almacén).

Esta dotación deberá justificarse en el proyecto de edificación.

h) Condiciones estéticas y de composición.

Se recomienda cuidar especialmente la fachada de las edificaciones que dan frente al sistema viario público.

Los pabellones de las Parcelas Uso Industrial responderán en su diseño, si son objeto de más de un proyecto de obras a un criterio de diseño unitario, desde el punto de vista formal, volumétrico y de materiales. Para lo que se tramitará un documento urbanístico que defina los criterios formales para el sector.

i) Otros usos compatibles

-Oficinas: Se admite este uso en todas las plantas

-Terciario: Se prohíbe este uso, salvo en el caso de que sea servidor del principal industrial.

j) Condiciones para vertidos industriales a la red general de saneamiento.

Cada industria del polígono, deberá realizar una declaración de vertido y en base a la misma, se le dará autorización para verter en la red de saneamiento de fecales del polígono las aguas residuales que genere su actividad.

Cada actividad deberá tener una única conexión a la red de saneamiento del polígono. En dicha conexión se situará la "Arqueta de control". Esta arqueta será fácilmente accesible y ejecutada de tal forma que se permita tomar muestras del mismo.

Los vertidos a la red del polígono deberán cumplir las condiciones y máximos que se indican en la siguiente Ordenanza de Vertidos que se establece para regularizar los vertidos industriales enviados a la red general de alcantarillado del polígono Industrial SAUI-3 "Etxabrri-Ibiña" en Zigoitia:

**ORDENANZA DE VERTIDOS para SAUI-3 "Etxabarri-Ibiña"**

1.- ÁMBITO DE APLICACIÓN

La presente Ordenanza tiene como finalidad la de regularizar los vertidos industriales enviados a la red general de alcantarillado del Polígono Industrial SAUI-3 de Etxábarri-Ibiña en Zigoitia, para que el sistema formado por la red de colectores y depuradora obtengan un rendimiento óptimo y permitan verter al Arroyo Iturrizabaleta en las condiciones reglamentarias.

2.- DISPOSICIONES GENERALES

Esta regulación establece las condiciones y limitaciones de los vertidos señalados en el artículo anterior, considerando sus efectos en la red de colectores y en la estación depuradora, y en el cauce receptor final, así como en la producción de riesgos para el personal operador del mantenimiento y conservación de las instalaciones.

Redundando en lo anteriormente dicho, la actual Ordenanza tiene como finalidad la defensa, protección y mejora del medio ambiente del Polígono Industrial SAUI-3 "Etxábarri-Ibiña", de su municipio y el de todo su entorno.

Sin perjuicio de lo establecido en esta Ordenanza, los dispositivos de evacuación de vertidos, las acometidas a la red de alcantarillado y, en general, las instalaciones para esta finalidad, se ajustarán a las normas del Plan General de Ordenación Urbana u ordenanzas que lo desarrollen, así como a las específicas que regulen las condiciones sanitarias de los mismos.

3.- INSTALACIONES INTERIORES DE SANEAMIENTO

Se considerarán instalaciones propias de la Industria, toda la red interior de saneamiento de ésta, incluyendo en su caso, arquetas separadoras de grasas, así como cualquier elemento para el tratamiento del vertido necesario para el cumplimiento de la presente Ordenanza, hasta la arqueta situada en la acera, a pie de la parcela, que a su vez servirá de arqueta registrable para el control de vertidos.

El mantenimiento, adecuación y reparación de todas las anteriores instalaciones corresponden al/los propietario/s de la industria o comercio.

Poligonoko araztegia edo kolektoreen sare orokorraren elementuak kaltetu ditzaketen sustantziak izan ditzaketen jardueretatik datozen isurien arduradun guztiek euren esku bideratu beharko dituzte beharrezkoak diren instalazioak.

Ordenantza hau aplikatze aldera, pertsona fisiko edo juridiko batenak diren eta industria edo merkataritza alorreko jarduera bakarraren kokagune den merkataritza eta industria eraikin multzoarekiko mendekotasunik ez duen merkataritza unitatetzat joko da.

4.- ISURTZE ARAUAK

4.1.- Isurtze eskaerak: Erabiltzaile berri guztiek isurtzeko dagokien baimena eskatu beharko dute. Horretarako Zigoitiko Udalera isuriei buruz egokitzat jotzen dituzten datu guztiak adierazten dituen eskaera bidali beharko dute. Arreta berezia jarriko dute ordenantza honetan ezarritako mugak gaindi ditzaketen ezaugarriak dituzten guztien kontzentrazioak, emariak eta erregimenak adierazterakoan.

Eskaera horren ereduak, gutxienez, honako informazioa gaineratu beharko du:

Pertsona fisiko edo juridiko eskatzailearen izena, helbidea eta IFK, bai eta eskaera egiten duen pertsona juridikoaren ordezkaria identifikatzeko datuak ere.

Industriak edo dendak kontsumitzen duen edo kontsumituko duela aurreikusi duen ur bolumena.

Deskargako hondakin uren bolumena eta horren erregimena; ordutegia, iraupena, batez besteko emaria, gehieneko emaria eta eguneko, hilabeteko eta urtaroko bariazioak, egongo balira.

Hondakin uren osagaiak eta ezaugarriak, ordenantza hau deskribatzen duten parametro guztiak barne hartzen dituztenak, bertan berariaz deskribatuta ez dauden zehaztapenak adieraztearen kaltetan izan gabe. Gehieneko, gutxieneko eta batez besteko balioak gaineratu beharko dira.

Saneamenduko barne sarearen, kutxatilen eta hura osatzen duten beste elementuen kokapen oinplanoak.

Jardueren, instalazioen eta burutzen diren prozesuen deskribapena dagoeneko deskribatutako isurian eragina izan dezaketen heinean.

Fabrikatutako edo jardueran erabilitako produktuaren deskribapena, bai eta tarteko produktu edo azpiproduktuena ere.

Isuria zuzentzeko dauden edo aurreikusi diren instalazioen deskribapena, funtzionamendua azaltzen duten plano edo eskemekin eta horien etekinen datuekin.

Guztiz debekatuta dago saneamendu sarean edozer gauza isurtzea, araztuta egon edo ez, Zigoitiko Udalaren agiri bidezko aginduzko baimena ez badu.

4.2.- Isurtze baimenak: Isurtze eskaera bat jasotzen denean, instalazio berrirako edo Udalak hala eskatuta, eta bertan aipatutako datuak edota Udalaren Zerbitzu Teknikoek egin ditzaketen egiaztapenak ikusita, hondakin horiek estolderia sarera isurtzeko aukera aztertuko du udalak. Zera erabaki ahalko du:

Guztiz debekatzea, tratamendu egokiaren bidez zuzendu ezin diren ezaugarriak dituztenean edo, zuzendu ahal badira ere, instalazio zuzentzailerik ez dutenean.

Ordenantza honen baldintza orokorren mende dagoen isurtze baimena ematea. Bertan industria edo dendaren isuriek izan beharko dituzten baldintza zehatzak eta instalatu beharreko kontrolerako gailuak, emariaren neurria eta laginketa zehaztuko dira. Baimen hori besterezina izango da hizpide dituen industria eta prozesuei dagokienez. Udalak baimenik eman gabe industriak industrialdeko estolderia sarean hondakinak isuriko balitu, udalak ordenantza honetan isuri kutsagarri edo baimenik gabekoentzat xedatutako neurriak hartu ahalko ditu.

4.3.- Isurtze baldintzak aldatzea: Estolderia sarea eta araztegia erabiltzen dituen industriak berehala jakinarazi beharko dio Zigoitiko Udalari manufaktura prozesuetan, erabilitako substantzietan edo bestelako edozein egoeratan gertatutako edozein aldaketa, baldin eta aldaketa horrek isuriaren erregimena edo horren kalitatea aldatzen badu edo deskarga betiko eteten badu.

Todos los responsables de los vertidos que provengan de actividades que sean susceptibles de aportar sustancias que puedan dañar los elementos de la red general de colectores o depuradora del Polígono, deberán ejecutar a su costa aquellas instalaciones que sean necesarias.

A efectos de aplicación de esta Ordenanza, se considerará unidad comercial independiente al conjunto de edificios comerciales e industriales que pertenezcan a una persona física o jurídica y en los que se desarrolle una única actividad industrial o comercial.

4.- NORMAS DE VERTIDO

4.1.- Solicitudes de vertido: Todos los usuarios nuevos deberán solicitar el correspondiente permiso de vertido. Para ello deberán remitir al Ayuntamiento de Zigoitia una solicitud en la que se indicarán todos los datos que se estimen pertinentes sobre sus vertidos, con especial indicación de concentraciones, caudales y régimen de todos aquellos que posean características que puedan sobrepasar los límites indicados en la presente Ordenanza.

El modelo para esta solicitud, deberá ser acompañado como mínimo de la siguiente información:

Nombre, dirección y CIF de la persona física o jurídica del solicitante, así como los datos de identificación del representante de la persona jurídica que efectúa la solicitud.

Volumen de agua que consume o prevé consumir la industria o comercio.

Volumen de agua residual de descarga y régimen de la misma; horario, duración, caudal medio, caudal punta y variaciones diarias, mensuales y estacionales, si las hubiera.

Constituyentes y características de las aguas residuales, que incluyan todos los parámetros que se describen en esta Ordenanza, sin perjuicio de que se indiquen determinaciones no descritas en ella específicamente. Deberán incluirse los valores máximos, mínimos y medios.

Planos de situación en planta, de la red interna de saneamiento, arquetas y demás elementos que la integran.

Descripción de actividad, instalaciones y procesos que se desarrollan en tanto puedan influir en el vertido final ya descrito.

Descripción del producto objeto de fabricación o actividad, así como de los productos intermedios o subproductos si los hubiere.

Descripción de las instalaciones de corrección del vertido, existentes o previstas, con planos o esquemas de funcionamiento y datos de rendimiento de las mismas.

Queda totalmente prohibido cualquier vertido a la red de saneamiento, depurado o no, si no consta con la preceptiva autorización documental del Ayuntamiento de Zigoitia.

4.2.- Permisos de vertido: Cuando se reciba una solicitud de vertido, ya sea de nueva instalación o a requerimiento del Ayuntamiento, y a la vista de los datos reseñados en ella y/o de las comprobaciones que los Servicios Técnicos del Ayuntamiento puedan realizar, se estudiará por parte de este último la posibilidad de autorización o prohibición de los citados vertidos a la red de alcantarillado, pudiendo decidir:

Prohibirlos totalmente, cuando presenten características no corregibles a través del oportuno tratamiento, o que, siendo corregibles, carezcan de instalaciones correctoras.

Otorgar un permiso de vertido sometido a las condiciones generales de esta Ordenanza y donde se indicarán las condiciones particulares a que deberán ajustarse los vertidos de la industria o comercio y los dispositivos de control, medida de caudal y muestreo que deberá instalar. Esta autorización se emitirá con carácter intransferible en cuanto industria y a los procesos a los que se refiere. En aquellos supuestos en los que el Ayuntamiento no conceda autorización y la industria, no obstante vertiera a la red de alcantarillado del Polígono, el Ayuntamiento podrá adoptar cuantas medidas se contemplan en la presente Ordenanza para los vertidos contaminantes o no permitidos.

4.3.- Modificación de las condiciones de vertido: La industria usuaria de la red de alcantarillado y depuradora deberá notificar inmediatamente al Ayuntamiento de Zigoitia cualquier cambio efectuado en sus procesos de manufactura, sustancias utilizadas o cualquier otra circunstancia que redunde en una modificación de su régimen de vertido, de la calidad del mismo o que provoque su cese permanente de la descarga.

4.4.- Isurien instalazio zuzentzaileak: Behin-behineko baimena eman denetik, edo baimenik gabeko isurtzeak direnean baimena ukatu denetik, gehienez ere sei (6) hilabeteko epean, industria eskatzaileak aurreikuspenen arabera eraikiko dituen instalazio zuzentzaileen proiektua bidali beharko dio udalari. Instalazio horiek eraikitzen hasi ahal izateko, udalaren berariazko baimena eskatu eta jaso beharko du. Baimen horretan gauzatze epea finkatuko da, eraiki beharreko instalazio zuzentzaileen garrantziaren arabera.

Instalazio eta tratamendu zuzentzaileen eraikitze prozesua, instalazioa, mantentzea eta funtzionamendu eraginkorra hondakinak estolderia sare nagusira isurtzen dituen industriaren esku egongo da guztiz, eta bere erantzukizuna izango da.

Behar bezala identifikatuta dauden Zigoitiko Udaleko langileek instalazio horiek berrikusi eta aztertu ahalko dituzte beharrezkotzat jotzen dutenean.

4.5.- Baimenik ez duten isuriak: Guztiz debekatuta geratzen da estolderia sare nagusira zuzenean edo zeharka isurtzea edo isurtzen uztea hobi septikoak garbitzen dituzten kamioien deskarga, edozein substantzia solido, likido edo gaseoso, bere izaera, propietate edo kantitateagatik, euren kabuz edo beste hondakinekin elkarri eragiteagatik estolderia eta arazketa sare nagusian ondorengo kalte, arrisku edo oztoporen bat edo batzuk sortzen badituzte:

Nahasketa leherkorren eraketa. Esplosimetro batez elkarren segidan eginiko bi neurketak ezin dute, inoiz, lehergarritasunaren behe-mailaren ehuneko 5etik gorako baliorik eman sarean husten diren tokian, eta neurketa isolatu batek ere ezin du aipatutako muga horren ehuneko 10etik gora egin.

Estolderia eta arazketa sare nagusia osatzen duten materialekiko eragin korrosiboak, horien bizitza erabilgarria murrizteko edo funtzionamendua aldatzeko gai direnak.

Ingurumen baldintza kaltegarriak, toxikoak, arriskutsuak edo deserosoak sortzea, estolderia eta arazketa sare nagusiaren ikuskapenaz, garbiketaz, mantentzeaz edo funtzionamenduaz arduratzen diren langileen sarrera edo lana galarazten edo zailtzen dutenak.

Hondakin urak aske ibiltzea, langileen zeregina edo estolderia sare nagusien funtzionamendu egokia zailtzen duten sedimentuak, inkrustazioak edo beste edozein obstrukzio fisiko sortzea. Horien artean, besteak beste:

Hesteak edo animalien ehunak, simaurra, hezurrak, ilea, azalak edo larru-barruak, erraiak, odola, lumak, hautsa, zepa, area, kare erabilia, harri edo marmol zatiak, metal zatiak, beira, lastoa, txirbilak, soropil zatiak, trapuak, aleak, lupulua, paper hondakinak, egurrak, plastikoa, alkitrana, asfaltozko hondakinak, erregaien edo olio labaingarrien prozesuaren hondakinak eta antzeko frijitzeko olioak, hiriko hondakin solidoak edo zabor birrintzaileetatik isuritako hondakin industrialak, eta orokorrean, 1,5 cm. baino gehiagoko tamaina duten solidoak edo produktu horietako edozeinen esekidura likidoak.

Araztegiaren prozesuak eta eragiketak ongi burutzeko zailtasunak eta asaldurak, aurreikusitako ur araztuaren tratamendu eta kalitate mailak lortzen uzten ez dutenak. Horien artean, besteak beste: disolbatzaile organikoak, tindagaiak, lakak, margoak, bernizak, pigmentuak eta antzeko substantziak, biodegradagarriak ez diren detergenteak, konposatu usaintsuak, etab.

Hondakin mota horiek arautzen dituzten legeen arabera toxikoak edo arriskutsuak izan daitezkeen hondakinak, eta bereziki honako substantzia hauek:

Biozidak, bainu zianuratuak, bainu azidoak, konposatu organohalogenatuak eta halako konposatuak ur ingurunean osatu litzaketen substantziak, konposatu organofosforatuak, konposatu organoestanikoak, disolbagarria edo uretan nahastezinak diren likido organikoak, erregaiak edo sukoiak, alkitranez edo hondakin alkitranatuz eginiko produktuak, laborategietako substantzia kimikoak eta farmazida edo albaitari konposatuak, identifikagarriak edo ez, ingurumenean edo gizakien osasunean kaltea eragin dezaketenak.

Edozein modutako hondakin erradioaktiboak.

Isurietan diluzio ura erabiltzea

4.4.- Instalaciones correctoras de vertidos: En el plazo máximo de seis (6) meses, a partir de la concesión del permiso provisional o de su denegación por tratarse de vertidos no permitidos, la industria solicitante deberá remitir al Ayuntamiento el proyecto de las instalaciones correctoras que prevea construir. Para poder iniciar la construcción de tales instalaciones, deberá solicitar y recibir la autorización expresa del Ayuntamiento. En esta autorización se fijará el plazo de ejecución, de acuerdo con la importancia de las instalaciones correctoras a construir.

La construcción, instalación, mantenimiento y funcionamiento efectivo de las instalaciones y tratamientos correctores, correrá totalmente a cargo de la industria vertedora a la red general de alcantarillado, y será de su exclusiva responsabilidad.

Estas instalaciones podrán ser revisadas e inspeccionadas por personal del Ayuntamiento de Zigoitia convenientemente identificado cuando lo estime necesario.

4.5.- Vertidos no permitidos: Queda totalmente prohibido verter o permitir que se viertan directa o indirectamente a la red general de alcantarillado, descarga de camiones dedicados a la limpieza de fosas sépticas, cualquier sustancia sólida, líquida o gaseosa que debido a su naturaleza, propiedades o cantidad, causen o puedan causar, por sí mismos o por interacción con otros desechos, alguno o varios de los siguientes tipos de daños, peligros o inconvenientes en la instalación general de alcantarillado y depuración:

Formación de mezclas explosivas. En ningún momento, dos medidas sucesivas efectuadas mediante un explosímetro, en el punto de descarga a la red, deben dar valores superiores al 5 por ciento del límite inferior de explosividad, ni tampoco una medida aislada debe superar en un 10 por ciento el citado límite.

Efectos corrosivos sobre los materiales que constituyen la red general de alcantarillado y depuración, capaces de reducir la vida útil de las mismas y/o alterar su funcionamiento.

Creación de condiciones ambientales nocivas, tóxicas, peligrosas o molestas que impidan o dificulten el acceso o la labor del personal encargado de la inspección, limpieza, mantenimiento o funcionamiento de la red general de alcantarillado y depuración.

Producción de sedimentos, incrustaciones o cualquier tipo de obstrucción física, que dificulte el libre flujo de aguas residuales, la labor del personal o el adecuado funcionamiento de las redes generales de alcantarillado. Se incluyen en relación no exhaustiva:

Tripas o tejidos animales, estiércol, huesos, pelo, pieles o carnaza, entrañas, sangre, plumas, cenizas, escorias, arenas, cal gastada, trozos de piedras o mármol, trozos de metal, vidrio, paja, virutas, recortes de césped, trapos, granos, lúpulo, desechos de papel, maderas, plásticos, alquitrán, residuos asfálticos, residuos del proceso de combustibles o aceites lubricantes y similares aceites de fritura, residuos sólidos urbanos o industriales residuos procedentes de trituradores de basuras y, en general, sólidos de tamaño superior a 1,5 cm. o suspensiones líquidas de cualquiera de estos productos.

Dificultades y perturbaciones de la buena marcha de los procesos y operaciones de la Depuradora, que impidan alcanzar los niveles de tratamiento y de calidad de agua depurada previstos. Se incluyen en relación no exhaustiva: disolventes orgánicos, tintes, lacas, pinturas, barnices, pigmentos y sustancias afines, detergentes no biodegradables, compuestos olorosos etc.

Residuos que puedan ser considerados como tóxicos o peligrosos, según las leyes que regulan estos tipos de residuos y en especial las sustancias siguientes:

Biocidas, baños cianurados, baños ácidos, compuestos organohalogenados y sustancias que podrían formar tales compuestos en el ambiente acuático, compuestos organofosforados, compuestos organoestánnicos, disolvente o líquidos orgánicos inmiscibles en agua, combustibles o inflamables, productos a base de alquitrán o residuos alquitranados, sustancias químicas de laboratorios y compuestos farmacéuticos o veterinarios, identificables o no, cuyos efectos pueden suponer riesgo sobre el medio ambiente o la salud humana.

Residuos de carácter radioactivo en cualquiera de sus formas.

El empleo de agua de dilución en los vertidos.

4.6.- Baimendutako isuriak: Aurreko artikuluan aipatutako ezaugarriak inoiz ez dituzten edo ondoren ezarritako gehieneko mugak gainditzen ez dituzten hondakinak isurtzea baimenduko da:

HUAra ISUR DAITEZKEEN HONDAKINEN MUGAK

| PARAMETRO FISIKOAK | GEHIENEKO BATEZ BESTEKO KONTZENTRAZIOA EGUNEAN | KONTZENTRAZIOA GEHIENEKO BAT-BATEKO |
|---|---|---|
| Tenperatura (° C) | 40,00 | 50,00 |
| Esekitutako solidoak (mg/l) | 500,00 | 1.000,00 |
| Material sedimentagarria (ml/l) | 15,00 | 20,00 |
| Solido lodiak | Ez dago | Ez dago |

| PARAMETRO KIMIKOAK | GEHIENEKO BATEZ BESTEKO KONTZENTRAZIO EGUNEAN | KONTZENTRAZIOA GEHIENEKO BAT-BATEKO |
|---|---|---|
| Ph (pH-ren U) | 5,5-9,00 | 5,5-9,00 |
| DBO5 (mg/l) | 600,00 | 1.000,00 |
| DQO (mg/l) | 1.000,00 | 1.500,00 |
| Eroankortasun elek. 25° C (µS/cm) | 3.000,00 | 5.000,00 |
| Zianuroak (mg/l) | 0,50 | 1,00 |
| Kloruroak (mg/l) | 800,00 | 1.000,00 |
| Sulfuroak (mg/l) | 2,00 | 5,00 |
| Sulfitoak (mg/l) | 2,00 | 2,00 |
| Sulfatoak (mg/l) | 1.000,00 | 1.200,00 |
| Fluoruroak (mg/l) | 10,00 | 15,00 |
| Fosforoa guztira (mg/l) | 15,00 | 50,00 |
| Nitrogeno amoniakala (mg/l) | 20,00 | 85,00 |
| Nitrogeno zitrikoa (mg/l) | 20,00 | 65,00 |
| Olioak eta koipeak (mg/l) | 100,00 | 150,00 |
| Fenolak guztira (mg/l) | 2,00 | 2,00 |
| Aldehidoak (mg/l) | 2,00 | 2,00 |
| Detergenteak (mg/l) | 6,00 | 6,00 |
| Pestizidak (mg/l) | 0,10 | 0,50 |

| METALAK | GEHIENEKO BATEZ BESTEKO KONTZENTRAZIOA EGUNEAN | KONTZENTRAZIOA GEHIENEKO BAT-BATEKO |
|---|---|---|
| Aluminioa (mg/l) | 10,00 | 10,00 |
| Artsenikoa (mg/l) | 1,00 | 1,00 |
| Barioa (mg/l) | 15,00 | 15,00 |
| Boroa (mg/l) | 3,00 | 3,00 |
| Kadmioa (mg/l) | 0,50 | 0,50 |
| Kromo IIIa (mg/l) | 2,00 | 2,00 |
| Kromo IVa (mg/l) | 0,50 | 0,50 |
| Burdina (mg/l) | 5,00 | 10,00 |
| Manganesoa (mg/l) | 3,00 | 6,00 |
| Nikela (mg/l) | 5,00 | 10,00 |
| Merkurioa (mg/l) | 0,10 | 0,10 |
| Beruna (mg/l) | 1,00 | 1,00 |
| Selenioa (mg/l) | 0,50 | 1,00 |
| Eztainua (mg/l) | 3,00 | 6,00 |
| Kobrea (mg/l) | 1,00 | 3,00 |
